



'HIRE ZAIN' ANTZEZLANA GAUR GUREAN

Gar produkzioak taldeak 3 eta 7 urte bitarteko umeei zuzenduriko lana taularatuko du Villabonan, 17:00etan **3**

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2009-01-10**

VIIURTEA 1.599.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Plan Orokor berriak 776 etxebizitza eraikitzeko aukera emango du

ZIZURKIL Planak hasierako onespina jaso du Udalaren eskutik eta hilaren amaierara arte aztergai izango da

GARRANTZIA «Udalaren funtzionamendurako funtsezkoa da, datozen 15 urtetarako balio du», dio Lazkano alkateak **6**



MIGEL BERGARA LARRARTE
UDAL LANGILEA

«Beharrezkoak dira makinak hauek herri txikietan»

BERROBI Lanez gainezka dabil egunotan elurra kentzen eta gatza botatzen **7**

**Maketa Lehiaketa,
Lain taldearentzat **2****



Margolanetarikoa bat. HITZA

**Agirreren
'Tolosa bihotz
begietan' ikusgai
Aranburun**

TOLOSA Lizardi elkarteak bultzatu du erakusketa **4**

A. IMAZ



Je t'attends
Mire zain

HAUR ANTZERKIA
hire zain

GAUR
Larunbata • 17:00etan
Villabonako
GUREA antzokian
Prezioa: 4 €

Villabonako Udala
Kultura Batzordea

Jubenil-senior mailako neskak lehenengo eta bigarren, Kontxan

Tolosa » Batelen ligako bigarren jardunaldiak jokatu ziren joan den igandean Gipuzkoako hiriburuko uretan.

ERREDAKZIOA

Federazio Trofeoako bigarren jardunaldia jokatu zen joan den igandean, Kontxako uretan. Bertan 55 ontzik hartu zuten parte bertan, maila ezberdinetan, eta tartean izan ziren Tolosaldeko Arraun Klubeko bederatzia ontzi.

Nesketan, kadete-infantil mailan bigarren geratu ziren A ontziak. Azkarrena denetan, Orio izan zen, garaipena erdietsiz. Zia-bogan Tolosakoak izan ziren denbora onena egin zutenak, baina azkenean, kontaldekoak gailendu ziren. B taldea berriz, zazpigarren geratu zen. Bertan, hainbat gazte lehiatu ziren estreinakoz. Orio eta TAK-ekoekin batera izan ziren Kontxan, Getaria, San Pedro, Koxtape eta Illunbe.

Jubenil eta Seniorren Mailan berriz, lehendabiziko bi postuak TAKeko arraunlarientzat izan ziren. Atzetik geratu ziren, Zumaia,

Koxtape, Arkote, Orio eta Fortuna. Garaipen hau TAKeko kide den, eta erietxean dagoen Rusori eskaini zioten.

Garaipenik gabe, mutilak

Infantilen mailan hamaika ontzik hartu zuten parte norgehiagokan. Tolosaldeko Arraun Klubeko A taldekoak laugarren geratu ziren. Lehendabiziko geratu zen Oriok baino 11 segundu gehiago behar izan zituzten hauek. B ontziak berriz, bederatzigarren iritsi ziren helmugara.

Kadeteetan, bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuten eskualdeko mutilek. Lehia gozorra izan zen, baina nabarmen gailendu ziren Uribe-Kostakoak.

Azkenik, jubenilen mailan jokatu zen lehia. Hambost batelek hartu zuten parte bertan, eta hemen, Castro-Urdialesekoak izan ziren irabazle. Atzetik geratu ziren Orio, Arkote, Getaria eta Tolosa A, hurrenez hurren. B taldekoak hamaugarren ailegatu ziren helmugara.

Hurrengo estropadak igande honetan jokatu dira. Konfirmatzeke badago ere, ziurrenik Kontxan izango dira.

Laburrak

Hautesle-errola ikusgai izango da astelehenean

TOLOSA » Maiatzaren 1ean izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Hori dela eta, Udalak herritarrei jakinarazten die, indarrean dagoen hautesle-errola zerrendak jendaurrean jarrita edongo direla udaletxeko beheko solairuan, hilaren 12tik 19ra. Oker dagoen daturen bat zuzendu nahi duenak orain du aukera. Erreklamazioa egiteko, NANren, pasaportearen edo gida-baimenaren fotokopia aurkeztu behar da Udaletxeko Estadistika Departamentuan (3. solairuan).

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria.** Ostegunetik igandera arte sukaldaria behar dugu. Oinarrizko sukaldaritzako plater konbinatuak egiteko. Interesatuak deitu 943 69 18 55 zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Katua.** Katua desagertu da Belauntzan azken egun hauetan. Beltza da eta lepazpi txuria dauka. Deitu 650 86 56 26ra.

Muxu dantzaleku berrira joateko autobusak

AISIA » Lekunberrin ireki berri duten Muxu dantzalekura joateko aukera izango dute hemendik aurrera eskualdeko herritarrek. Hau, larunbatero izango da zabalik, 01:00etik 07:00etara bitartean. Hara gerturatzeko erraztasunak ematearren, autobusak jarriko dituzte aurki eskualdetik haraino. Dantzalekurako sarreraren prezioa 8 eurokoa da eta honekin, kontsumizio bat hartzeko aukera izango dute bezeroek. Euskal giroa izango da nagusi, gainera, opariak eta sorpresak ere izango dira.

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Lekunberrin, 104 metro², lau logela, lehenengo pisua, berogailuarekin. 480 euro. Deitu 636 17 16 24ra.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin beharra dago. Interesatuak deitu 657 23 00 11era edo 634 91 94 82ra.



Leire Berasaluze eta Kristina Aranzabek sortu zuten Lain, 2007an; orain bost kidek osatzen dute taldea. HITZA

Gaztearen Maketa Lehiaketa irabazi du Lain musika talde gazteak

Musika » Sari gisa, Bilbao BBK Life Jaialdian jotzeko aukera izango dute; orain, beraien lehendabiziko maketa prestatzen ari dira.

ESTIEZEIZA

Gazteak Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzaren laguntzarekin antolatutako Maketa Lehiaketa irabazi du Lain taldeak *Aukera berri* bat kantuarekin.

Kristina Aranzabe (gitarra eta ahotsa) Leire Berasaluze (gitarra eta ahotsa) Imanol Urkola (gitarra) Javi Rivero (baxua) Julen Kaminos (soinu teknikaria) eta Jon Altuna (teklatura eta bateria) osatzen dute taldea. Aranzabek azaldukoaren arabera, «Leire Berasaluzek inori esan gabe aurkeztu zuten abestia lehiaketara, garrantzia handiegirik eman gabe, eta azkenean, irabazi egin dugu». Orain, sari gisa, 5.000 euro jasotuz eta kantuaren bideo klipa grabatuko dute. Honez gain, Bilbao BBK Live Jaialdian jotzeko aukera izango dute. Azken hau da, Aranzaberen esanetan, saririk onena.

Euskal Herri osoko taldeek aurkeztutako 316 kantu lehiatu dira norgehiagokan. Hauetatik, 30 single hautatu zituen epaimahaia aurretiko aukeraketa batean. Azkenik, Tolosaldekoena gailendu da. Ustekabean etorri zaie taldeki-degutzi saria, eta orain, oso gustura daude horrekin.

Talde gaztea da Lain, batz beste 17 urte dituzte eta Kristina Aranzabek onartzen zuen «beldur pixkat» ematen diela horrelako gauza bat irabazteak. Baina bestetik, gozoga ere gaineratzen zuen, «horrelako aukera bat ez baitigute zuren berrit emango».

Laineko ustetan Maketa Lehiaketa irabazi izanak, beraien musika kanpoan ere ezagutzera emateko aukera luzatuko die. Izan ere, orain arte, eskualdean eskaini dituzte kontzertu gehienak, eta hemendik aurrera, Euskal Herriko beste hainbat txokotan jotzeko aukera ere izango dute. Horren adibide da, datozen asteetan, Lainen musika Tolosa, Lasarte eta Elgoibar aldean entzuteko aukera izango dela. Dena den, garbi dute euskal talde gazteek zaila dutela txoko bat egitea egun musikaren munduan.

Entzuleen artean bozkatuena berriz, metal rocka egiten duen Averno taldearen ingelesezko *Sell* kantua da. Honek 2.000 eraman ditu.

Lehenengo pausok, baina indartsuak

2007an sortu zen Lain taldea. Hasiara batean, Leire Berasaluze adunarrak eta Kristina Aranzabe billabonarrak osatzen zuten taldea. Bikotea 2007ko azaroak Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketara aurkeztu zen, eta irabazi egin zuten. Hortik gutxira, kontzertu bat emateko deitu zieten, eta emanaldiakin hasteko, taldea

handitzea erabaki zuten. Honela, egun, bost gaztek osatzen dute taldea.

Lehen maketa bidean

Abenduan hasi ziren Lain taldekoak beraien lehendabiziko maketa grabatzen. Jada ahotsa grabatzea besterik ez zaie geratzen eta ondoren, nahasketekin hasiko dira. Grabazio lanetarako Amasako IZ estudioa aukeratu dute. Lehendabiziko lan hau sei abestik osatuko dute. Honetarako lehenagotik eginak zituzten abestiak erabiliko dituzte.

Maketa lehiaketako beste sarituak

Euskal Herriko musika munduan oihartzun handia du Gaztearen Maketa Lehiaketak, eta ohikoa izaten da, irabazleek diskoetxe batekin kontratua sintzea. Halaxe gertatu zitzairen, esaterako, EH Sukarra, Sorotan Bele, Zeta Mays, Kerobia eta Kauta taldeei.

Estilo eta mota ezberdinetako taldeek hartu dute parte aurretik ere lehiaketan. Oraingo honetan, epaimahaiko kideek parte-hartzaileen kalitatea nabarmendu dute. Beraien ustetan, Lain taldea izan zen saria merezi zuena, baina hauen gain, beste batzuk ere izan dira goratuak. Esaterako, Girls'N Blue taldeak 600 euro eraman ditu *Nevermind* kantuagatik. Hauek ingelesez kantatzen dute, kantua, piano eta akustikorekin laguntzaz. Jazz ukitu arina eta bi ahots dituzte taldeak.



Hire zain antzezlaren une bat; 3 eta 7 urte arteko haurrentzat zuzenduta dago. HITZA

3 eta 7 urte arteko haurrei zuzenduriko 'Hire zain', gaur

Villabona » Gar produkzioak taldeak taularatuko dituzte antzezlana, 17:00etatik aurrera, Gurea aretoan.

ERREDAKZIOA

Eguberrietako oporraldiaren ondoren, liburua hartu eta ekin die eskolei etxeko ikasle txikienei. Aste luzearen ondoren asteburua gogotsu hartzen dute eta zer hobeto atseden egunetaz gozatzeko, antzerkira joatea baino. Villabonan, behintzat, halaxe pentsatzen dute eta 3 eta 7 urte bitarteko umeentzat *Hire zain* izeneko antzezlana antolatuta dute gaurko.

Gar produkzioak-en eskutik taularatuko dute lana Gurea aretoan; 17:00etan hasiko da eta 45 minutuko iraupena izango du; sarreak 4 eurotan izango dira salgai.

Antzezlaren protagonistak Jon Elola oriotarra eta Iñigo Aranbarri azkoitiarra aktoreak dira.

» HAINBAT DATU

■ Izenburua.

'Hire zain'.

■ Non.

Gurea aretoan.

■ Noiz.

Gaur, 17:00etan.

■ Salneurria.

4 euro.

■ Norentzat.

3 eta 7 urte bitarteko haurrentzat.

■ Iraupena.

45 minutu

■ Aktoreak.

Jon Elola (Orio) eta Iñigo Aranbarri (Azkoitia).

■ Zuzendaria.

Luis Zornoza Boy.

Luis Zornoza Boy zuzentzen duen lanak bi gizonen istorioa kontatzen du. Eredu ilun batean haziak agertzen dira, erno ahal izateko jasoko dituen norbaiten zain daude hazi gorri hauek. Orduan aipatu bi gizonen topatu dituzte; lehenengoak zaindu egingo ditu ha-

ziak eta erno bitarte itxarongo du; bigarrenagoak, bildu egiten du aurkitzen duen guztia, haziak bere bildumaren parte izango dira.

Pixkanak, bi protagonisten istorioak gurutzatu egingo dira, pixkanaka haziak ere, banan-bana, galdu egingo dira, azkenean bakarera geratuko dabizirik. Baina hau handitu egingo da eta haman aza zabalduko ditu. Horrela, istorioa berriro hasiko da.

Aholkularitza eta esperientzia handiko lantaldea

Bereziki umei zuzenduriko lana aurkeztuko du gaur Gar produkzioak taldeak. Lanak garatzerakoan aholkularitza jasotzen dute, umeentzat egokiak diran lanak garatu ahal izateko. Besteak beste, pedagogoa eta hezkuntzako adituek laguntzen dute horretan.

Lantaldea ere esperientzia handikoa da. Aktoreak gazteak izanagatik lan ugari egin dute arte munduan, bai antzerkian baita telebistan ere.



Ikastaroen artean yoga izango da aukeran. HITZA

Bigarren lauhilekoan ere aisirako eskaintza zabala ikastaroetan

Gizartea » Tolosan, Berrobin, Gaztelun eta Orexan ikastaro ugari antolatuta ditu Aulas Kutxak; izan-ematea, zabalik.

ERREDAKZIOA

Urte berriarekin batera Aulas Kutxak bigarren lauhilekorako antolatutako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago hilaren 19ra arte, astelehenarekin. Eskualdean Tolosan, Berrobin, Gaztelun eta Orexan izango da ikastaro hauetan parte hartzeko aukera.

Parte hartu ahal izateko 16 urte-tik gorakoa izan behar da eta Kutxan kontu bat eduki behar da irekita. Arduradunek jakinarazi dutenez Gazteak edota Urrezko tarjeta dutenek %20ko beherape-na izango dute kuotan.

Informazio gehiago nahi duenak Kutxako bulegoetan bertan eskura dezake, bertan lutzatuko dituzten informazio orrialdeetan, hain zuzen ere. Kutxaren Gizarte-ekintzak laguntzen du diruz egitasmo honetan.

Baldintza hauek bete eta interesa dutenek izena eman dezakete 902 540040 telefono zenbakian (08:00etatik 14:30era bitarte), edota www.kutxasocial.net helbidean.

Era askotariko ikastaroak daude

» IKASTAROK

■ **Tolosa.** Dantza latinoak; Windows, Word eta Internet; oportetako argazkiekin DVDa sortu; altzarien berreskuratzea eta dekorazioa; yoga; jantzien berreskuratzea eta konponketa; eskularen tailerra; hitzaldi sorta (Tolosa ari-ma osoz: historia) eta sarrera libre izango duen hitzaldia, Txinako medikuntzari buruz.

■ **Berrobi.** Arabiar dantza; kontserbak egiten ikasteko; Pilates bidezko gimnastika.

■ **Orexa.** Altzarien berreskuratzea eta dekorazioa.

■ **Gaztelu.** Kosmetika naturala.

aukeran. Tolosan dute eskaintzarik zabalena. Gizarte ekintzatik hain posible egiten dutenen laguntza goraipatu nahi dute; hala, Softec, Izaskun Arriola dantza eskola, Txinparta elkarte, Zuentzart, Sanatana Dharma yoga eskola eta Kultur Etxea aipatu dituzte.

Herri txikienetan ere izango da eskaintzariik. Berrobin, besteak beste, San Andres ikastetxearen eta Bide Ona elkarteak azpimarratu dituzte. Gaztelun kosmetika naturalaren inguruko ikastaroa izango da Eskola Zaharreen-ekoen laguntzarekin. Azkenik, Orexan, altzarien berreskuratzea eta dekorazioa landuko dute, Segoretxearen laguntzaz.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Tolosako ohiko ikuspegia. Nafarroako zubia, Zerkausia, Santa Maria eliza eta Uzturre ikusten direlarik.



Ezkerrean, Tolosako Plaza Zaharrak lehen zuen itxura. Erdian, Torre baserria, San Esteban auzoan. Eskuinean, Zumardi Txikia; oso bestelakoa da gaur egun duen itxura.



Ezker-eskuin: Ibarra San Bartolome plaza, Tolosako Montezkue auzoaren ikuspegia, Tolosan, Laskoraingo Atea eta Belauntzaren ikuspegia.

Maitasunezko ikuspegiak

Kultura » Juan Jose Agirre margolari tolosarraren 'Tolosa Bihotz begietan' erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian otsailaren 14ra arte.

ERREDAKZIOA

Tolosa eta inguruko herriak asko aldatu dira urteetan zehar, elementu zaharrak bota eta berriak altxatu baitituzte. Aranburu jauregian otsailaren 14ra arte ikusgai jarri duten erakusketan erraz atzeman daiteke hori.

Tolosa bihotz begietan izeneko margo erakusketa Lizardi elkarteak bultzatu du, eta Juan Jose Agirre Aizpuru margolari tolosarraren lanak biltzen ditu. Tolosako hi-

rigunearen zehar hainbat txoko eta ibai bazterrak duela 50 urtean zeuden moduan azaltzen dira, eta gaur egun argazkien ere alderatu dituzte.

«Paisaiaren lotutako maitasunezko ikuspegiak gauzatzen dira eta tolosar askorentzat ezagunak suertatuko dira, baina belaualdi berriek ezagutu gabekoak», azaltzen du Agirrek.

1922an jaio zen Tolosan Agirre, eta Labordey Labayen izeneko en-

presan litografoa izan zen. «Erakusketa honen bitartez gure herriko paisairen balioa aldarrikatu nahi dut eta batez ere azken urteetan suertatzen ari diren aldaketa guztiekin galera ugari izan baititugu», dio.

Argitalpena paisaiari buruz

Bestalde, Juan Jose Agirre Mauleon historialariak erakusketa hau abian hartuta Tolosako paisaiaren inguruan argitalpen bat egiteko asmoa duela azaldu du; «paisaia da edozein herriko ezaugarri nagusienetakoa eta horren inguruan eta suertatzen ari den bilakeraren inguruan gogoeta bat egokia da», adierazi du historialariak.



Juantxo Agirre eta Juan Jose Agirre, Aranburu jauregian. HITZA



Olaberria sorterrian omendu zuten Olinpiar Jokoetatik bueltan. HITZA

Leire Olaberriari Euskadi Irratia Saria eman diote, entzuleen bozkei esker

Kirolak » 2008. urteko kirolari onena izan da, eta bigarren Iker Martinez eta Xabi Fernandez izan dira.

ERREDAKZIOA

Leire Olaberria pista txirindulariak Euskadi Irratia Saria jaso du eta guztira 47 puntu jaso ditu irratiko entzuleen aldetik. Sari honek Euskadiko kirolaririk onena dela adierazten du. Tarte txikia ateradio Xabi Fernandez eta Iker Martinezz itsas gizonen, 39 puntu eskuratu baitituzte eta ikaztegiatarrak, berriz, 47.

Olaberriak Aginte Makila jaso du honela, eta bere pisua ardotan emango dio Faustino etxeak, bertako upategian egingo baita sari banaketa.

Hautagaien artean ere Edurne Pasaban mendigoizalea eta Xabi Alonso futbol jokalaria (biak tolosarrak) zeuden eta ez dira oso atzean gelditu: Pasaban laugarren postuan gelditu da 35 punturekin eta Xabi Alonso 26rekin, sailkapen orokorrean bosgarren.

2004an Xabi Fernandezentzat Sei urte daramatza irratiak sari hau banatzen eta 2004koa Iker Martinezek eta Xabi Fernandezek irabazi zuten: Olinpiar Jokoek indarra dutela argi gelditu da.



Ninfak margotzerako orduan argazkiak erabiltzen ditu, eta paisaia berriz, irudimenari jarraituz egiten du. MARCE TENA

Alegiako jubilatuen tabernan urtarrila osoan zehar Marce Tena ibartarraren margolanak daude eta kasu honetan ninfen, begien eta emakumearen gorputza islatu ditu kolore biziekin eta errealdismo handiz.

Ninfen munduan barna

NEREA URBIZU

Ninfak eta euren begi bereziak dira Alegiako jubilatuen tabernan hilabeteen zehar ikus daitezkeen margolanak. Baso eta zuhaiztietan bizi diren ninfak irudikatu ditu Marce Tena ibartarrak: «Emakumeen gorputzak berez gustatzen zaizkit, eta aurpegiak ere bai». Guztiak iru-

dimenaren bitartez margotu ditu, argazkien laguntzaz eta ikertzearen bidez.

Normalean giza gorputzak eta aurpegiak margotzea ez da erraza izaten, eta ez da normala ere erretratoak erakusketetan ikusteak. Marce Tena makillatzailea da ere: «Begiak margotzea ere asko gustatzen zait, bai margolanetan eta bai-

ta benetazko begietan. Gorputza bera ere makillatzea oso gustuko dut». Horregatik, koadro guztiak errealditatearekin oso fidelak dira zentzu horretan; hau da, argazkiari antz handia antzematen zaie, bukaera finak dituzte. Tenak dioen bezala, «ninfak errealki dira baina ingurua fantastikoagoa, kolorengatik batez ere. Gehienera



Begiei garrantzi handia ematen die; irudian, begi urdinak. M. TENA

tximeleten hegala jarri dizkiet, eta hori nire irudimenaren partea izan da».

Erakusketan dauden bi margolan arkatzez eginda daude, bat bakarrak oleo teknikarekin eta beste batzuk pastelean. Nahasketak ere badira. Hauek guztiak oso kolore biziak dituzte: laranja, urdina, berdea... «Gustuko ditut kolore biziak eta indartsuak, beste batzuei pastel koloreak gustatzen zaizkien bezala. Hori izaerarekin bat datorrela iruditzen zait, nire izpirtuta da».

20 urte inguru margotzen

«Nire kabuz ikasi dut margotzen, liburuei esker, erakusketak ikusteari esker... Makillajea ikasi du eta horretan ere lan egin izan du, baita publizitaterako ere.

16-17 urterekin Tenak bere lehen oleo maletina erosi zuen eta geroztik ikasten jarraitu du. 20 bat urte, beraz, margotzen daramatza. Alegian dagoen erakusketan ninfen, begiei eta emakumeen gorputzei dago lotuta, baina abstrakzioa jorratzea ere gustatzen zaio. «Animalia asko ere irudikatu izan ditut, kolekzio handia daukat, eta paisiak ere margotu izan ditut, bai argazkiei begira eta baita irudimenari lekua eginez».

Gaur egun, oparitu berri dioten aerografoarekin hasete gogoak dauka Marce Tenak. «Baina honetarako ere denbora behar da». Izan ere, esaterako Alegian dauden 10 margolanak egiteko lanetik atera ondorengo denboran egin ditu. «Afizioz margotzen dut, mementoz behintzat».

Margotzea oso gustuko du eta «nire mundura joateko eta ihes egiteko balio dit». Berak ihes egin duen horiei esker, Alegian dagoen erakusketan ikusgai dauden irudi magiko horiek gu ere beste mundu batera garamatza.



Emakumea begi berdeekin. M. TENA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ARAMBURU

Alokatzeko (Tolosa), Etxeak. Allirin eta Larramendin.
Alokatzeko (Tolosa), Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean eta Batxilerriz Zaldibian, erosteko aukerarekin.
Salgai (Tolosa), Etxebizitzak, Kale Nagusian, Araba etorbidean, Batxilerriz Zaldibian, Martin Jose Iraola kalean eta Zumalakarregi kalean.
Salgai (Legozeta eta Iruran), Etxebizitza eraberritzea, Legozetan 32.000.000 pztia eta Iruran 20.000.000 pztia.
Salgai (Irura), Etxebizitza sartzeko moduan, Eskaintza ona.
Salgai, Garaje ibixiak eta irekiak, Amartzen (Tolosa) eta Ibarren.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Tolosaldeko komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...), hainbat eragilerekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabiltza.

Eskatzen da:

- Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskara maila ona.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa dutenek curriculum bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo beste helbide honetara, urtarrilaren 20a baino lehen. JARDUNA S.L. Giza Baliabideak Saila - Martin Ugalde Kultur parkea - 20140 Andoain Erreferentzia: THHK209

776 etxe berri egiteko aukera emango du Plan Orokor berriak

Zizurkil » Udalaren hasierako onespina jaso du Hiri Antolamenduko Plan Orokorren eta hilaren bukaerara arte dago aukera aztertu eta alegazioak egiteko.

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorren hasierako onespina eman dio. Dokumentua jendearean ikusgai dago interesaturik dagoen edonork aztertu ahalizateko eta alegazioak aurkezteko, hala nahi izanez gero. Hilaren 30a da azken eguna horretarako. Planaren ezaugarri nagusia 776 etxebizitza berri egiteko aukera ematen duela da, hauetatik 391 libreak, 148 tasatutako 237 babes ofizialekoak. Hala ere, kontuan izan behar da 391 etxebizitza libre horietatik kopuru handi bat egun dauden etxebizitza zaharrak bota ondoren eraikiko liratekeela.

Hirigintzari dagokionez, Marian Lazkano alkateak azaldu du Plan berria diseinatzerakoan kontuan hartu dela Elbarrenako herri-guneak elkarrekin bateratzea. «Elbarrenaren hazkuntza egun dauden etxebizitzaren inguruan izatea aurreikusita da. Ez dugu nahi edozein lurretan eraikitzea, baizik eraikita dagoenaren inguruan».

Elbarrena gunez gune

Elbarrenak aldaketa handiak izango ditu Planaren arabera. Fraisoro Errota bezala ezagutzen den gunea, futbol zelaitik ia Bentaraino eta Fraisoroko maldak hartzen dituen, «aurpegia guztiz aldatuko zaio», azaldu du alkateak. Etxebizitza berriez gain, «berdegune ugari izango ditu eta gune handi bat aisialdirako». Egun, zoru hori Diputazioarena da eta erakunde horrek Udalarari utziko lioke. Negoziazioaren arabera, Diputazioak eskatuko lukeena lurra uzteraren ordainetan Uliazpi erakundearentzako etxebizitza bat izango zen, bertan, proiektu baten bitartez, adimen urriko pertsonak bizitzeko.

Errota bezala izeneko lekuan ere aldaketa nabarmena izango litzateke. Egun Amondarian enpresa eta bere inguruko enpresak daude. Planak aurreikusitako Olenzoko bidegurutzea baino lehen, Asteasura doan bidearen eskubialdean, industriuagune berri bat eraikitzea. Bertara lekualdatuko lirateke Amondarain eta beste enpresak eta orain dauden guneen etxebizitza eraikiko lirateke.

Elbarrenako beste bi guneetan



Elbarrena edo Zizurkil Behean aldaketa ugari izan daitezke hurrengo 15 urteetan. JOKIN AZKUE



Zizurkil Goirako aurreikusita dagoen Plan berria. HITZA

ere aldaketa handiak izango lirateke. Alde batetik, Iturralde gunean, hau da, izen bereko baserriaren inguruan eta Pagamuño auzoaren atzealdean urbanizazio berri bat egingo litzateke. Ihartza gunean ere, izen bereko baserriaren inguruan, etxebizitza kopuru handituko litzateke eta berdegune handi bat egokituko.

Zizurkil Goia oinezkoentzat

Aldaketa nabarmenak ere aurreikusten dira Zizurkil Goian. Izan ere plaza oinezkoentzat jarri nahi da. Hala, errepede nagusia ez zen plazatik igaroko, baizik elizaren eta eraikiko den San Millan gune berriaren atzetik joango litzateke. Elizaren atzean aparkalekuak egingo ziren. «Egun, bazkalorduan eta asteburuetan, plazan auto ugari aparkatzen dira eta hori guztia plazatik kanpora atera nahi dugu», azaldu du Lazkanok. Oinezkoentzat izateak ez du debekatuko autoak plazaren inguruan sarzatek, baina espero dute hartu-

ko diren neurri asko murriztuko dutela trafikoa.

San Millan gune berrian etxebizitza eraikitzeo aukera ematen du Plan orokorra. Bestalde, eskola handitza aurreikusten da eta baita Iriarte Kultur Etxea ere.

Lokal komertzialak etxebizitzetarako

Plan Orokor berriak suposatuko duen aldaketetan, alkateak nabarmendu ditu sortuko diren berdeguneak, batez ere Fraisoro Errota eta Ihartza guneetan. Beste berri-tasun bata lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko aukera izango da. «Hori gertatzeko, noski, baldintza batzuk jarraitu beharko dira: metro koadro kopuru jakin bat, ondoan dauden lokaletan egiten den aktibitatea...», zehaztu du Lazkanok. Beste udalerrri batzuetan horrelako neurriak hartu direla ikusita hartu du Udalak aukera hori emateko erabakia.

Lazkanok Plan Orokorren garrantzia nabarmendu du: «Udala-

» ERAIKIGARRIAK

Etxebizitzak

- **Fraisoro Errota.** Guztira 190 etxebizitza. Horietatik libreak 66, tasatuak 51 eta babesekoak 73.
- **Errota.** Guztira 156 etxebizitza. Horietatik libreak 94, tasatuak 31 eta babesekoak 31.
- **Ihartza.** Guztira 86 etxebizitza. Horietatik libreak 52, tasatuak 17 eta babesekoak 17.
- **Iturralde.** Guztira 163 etxebizitza. Horietatik libreak 41, tasatuak 32 eta babesekoak 90.
- **San Millan.** Guztira 69 etxebizitza. Horietatik libreak 26, tasatuak 17 eta babesekoak 26.

Eremu irekiak/parkeak

- **Fraisoro parkea.** 18.204 m².
- **Ihartza parkea.** 7.871 m².

Industrialdeak

- **Luberri.** 18.364 m².

ren funtzionamendurako dokumentu garrantzitsua da eta datozen hamabost urtetarako balioa duena. Bai politikariek eta bai Udaleko teknikariek dokumentu hori erabili behar dute oinarri bezala erabakiak hartzeko». Bide batez, alkateak herritarrak animatu ditu dokumentua aztertzeraz joan daitezela eta alegazioka egin, beharrezkoa ikusiz gero.

Behin alegazioen epea bukatuta, Udalak jasotako alegazioak aztertu eta bidaratu dituzte eta ondoren dokumentua Foru Aldundira bidaliko du. Bertan, Plan Orokorra aztertu eta beharrezkoak ikusten diren moldaketak egin ondoren Udalera bueltatuko da behin betiko onspena emateko. «Urte amaierarako guztiz onartuta egoitea espero dugu», azaldu du Lazkanok. Egun indarrean dagoen Plana 1991 urtean onartu zen.

L Laburrak

Euskadiko Kluben Arteko Txapelketa Beotibarren

PILOTA » Euskadiko Kluben Arteko Txapelketa abian da eta lehiaketa honetan ere Tolosako eta Bidegoiango Aurrera-Saiatz pilotak elkarrekin arituko dira, Gipuzkoako Txapelketan lortutako emaitza onen ondorioz. Guztira bederatzita talde aurkeztuko dituzte elkarrekin. Gaur, 11:00etan, izango ditu lehenengo hiru partidak Beotibar pilotalekuan. 22 urte azpikoekin mailan, binaka, Aurrera-Saiatz eta Bi Aizpe ariko dira. Ondoren, nagusien mailan, binaka, Gure Txokoa eskolaren aurka. Eta bukatzeko, ohorezko mailan, Lernoakoen aurka jokatuko dute Aurrera-Saiatzeko pilotariek.

Oinkariko enbeteak Gurearen erakusgelan

VILLABONA » Oinkari dantza taldeak ohar bat bidali du taldeko dantzariari jakinarazteko datorren astelehenean aurrera, hilaren 12a, enbeteak Villabonako Gurea aretoaren erakusgelan burutuko direla. Bide batez, Oinkari dantza taldeko arduradunek eragozpenak barkatzeko eskatu dute.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuntoki klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leiztaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

E Elkarrizketa

MIGEL BERGARA LARRARTE › Berrobiko udal langilea



ASIER IMAZ

«Zalantzarik gabe herri txikietan horrelako ibilgailuak behar dira»

Elurra » Hiru Errege Magoek elurra ekarri zuten gure herrietara; elurrarekin batera izotza ere agertu da; egunerokotasuna eten ez dadin hamaika langile ari dira ezohiko beharrean.

ASIER IMAZ

Ibarratik Leitzara doan errepidean, atzo bederen, Ertzaintzaren mezu bat aurkitzen zen: «Mendatea itxita aurkitzen da, kateak behar dira». Berrobin bien bitartean hara eta hona, gelditu gabe, hor zebilen Miguel Bergara (Berrobi, 1964) udal langilea elurra kenduz eta gatza zabalduz.

Elurrik ez dagoenean zein da zure lana?

Herriko lanak egiten ditut; konponketak, garbiketak, kanposantukolanak eta horrelako gauzak.

Egun hauetan berriz egunerokotasuna elurrak aldatu dizu. Zertan harrapatu zaitut oraintxe?

Gorabehera handiekin hementxe. Ezin dena egin, ezin leku guztietara joan... Alde batetik batek deitzen dizu, gero besteak; gatza bota han eta hemen eta, lagun bakarrak... ezin dena egin.

Udaletxeko 4X4ari moldaketa batzuk egin dizkiozue.

Aurrean elurra kentzeko pala jarri diogu, atzean berriz gatza zabaltekoa.

Errepide nagusian eta kalean bakarrik ala inguruko baserrietara ere iristen zara?

Herri barruan, errepide nagusian, kaleetan eta gero baserrietan ere ibiltzen naiz.

Herritarrek deitzen al dute zerbitzua eskatuz?

Bai, telefonotik deitzen dute. Nik badakit egin behar dudana ibilbidea zein den, baina adibidez zerrien granjan gorabeheraren bat baldin badute, edo oiloenean, kamioiak jaisteko arazoak dituela eta abar, deitu egiten dute. Arazoa biek batera deitzen dutenean dago, hor geratzen zara nora joan ez dakizula. Hori ere gertatzen da.

Elurra dagoenean, goizean esnatsu eta zein da zure lana?

Lehendabizi 4X4a hartu, gatza kargatu eta eskola inguru hauetan gatza bota, umeak eskolara joaterako. Ingurua menderatzean, kaletatik pasa eta gero baserrietara.

Ibilgailu honekin arazorik eduki al duzu mendi aldera joaterakoan, izotza edo elurra medio?

Normalean ez. Katxarro hau ondo ibiltzen da. Arazoa izotza handia egiten duenean sortzen da. Elurra kentzen du baina izotz handia ez.

Elurra kentzeaz gain, gatza ere botatzen duzu, baina zergatik botatzen da gatza?

Gatzak elurra urtu egiten du. Gatza bota ondoren elurte txikiaren bat botatzen baldin badu ez dio izoten izotza egiten.

Nolako gatza erabiltzen duzue?

Hau Zaragozatik ekartzen dugu; gatz lodia da, honetarako berezia. Urte batean itsasoan erabiltzen dena, portukoia ekarri egunean. Baina oso xehea zen, zabalteko makina honek ez zuen zabalteko. Pegatu eta ekarri genuen itsasokoia, portukoia, baina oso xehea zen. Itsasi eta trinkotu egiten zen. Hau berriz kozkorra denez ongi zabalteko du.

Nola du funtzionatzen du?

[4X4aren atzeko aldera joan da Miguel Bergara. Azken gatz apurrik bildu eta makina martxan jar-

tzen du. Inbutu batetik behera gatza erortzen hasten da eta beheko zatian bueltaka dagoen burnizko zilindroak gatza lurrean zabalteko du]. Honek adibidez 2 metrotan, 3tan edo 4tan zabalteko du. Hori barrutik kontrola dezakezu managailuaren bidez.

Azken egun hauetan elurra gogotik egin du. Noiz hasi zinen lan honekin?

Erregeen hurrengo egunean hasi nintzen. Lehenago, 2008. urtea-

«Bitartekoak badaude baina hala eta gutiz ere ez dira leku guztietara iristen»

«Herri barruan, errepide nagusian, kaleetan eta baserrietan ere ibiltzen naiz 4x4arekin»

ren amaieran, lau elurte-edo bota zituen eta orduan ere ibili nintzen. Berrobin 2006an hasi ginen honela.

Orduan erosi al zuen materiala Udalak?

Bai. 4X4a, elurra kentzeko pala eta gatza zabaltekoa.

Berarekin lan egiten duzunez, zer moduzko inbertsioa iruditzen zaizu?

Ona, inbertsio ona. Herri txikietan horrelakoa behar da. Dударik gabe. Gero Albizturtik ere deitu zituguten, ea nola funtzionatzen zuen ikusi nahi zutelana. Dena montatu eta han ibili nintzen erakusten; palak nola funtzionatzen zuen, gatzarena... Hau ez da elurra kentzeko bakarrik, pala hau edozertarako erabil dezakezu; luiziren bat garbitzeko... Inbertsio ona iruditzen

zait. Hori bai, leku asko behar du ibiltzeko, ez da ibilgailua bakarrik, tramankulu hauekin ba al dakizu zein luzera hartzen duen? Komeriak, komeriak... [Barreak].

Ezustekorik eduki al duzu?

Bai, bai [Barreak]. Apuro ederrak izan ditut bai. Inguru hauetan hor-migoizko bideak daude, estu xamarrak, alde batera mendia daukazu eta bestera zuloa edo pinudia. Goralde horretan behin gelditua naiz atera ezinik, aurreko gurgila sartuta. Auzoko traktore bati deitu eta horrela atera genuen. Eskapada txikiak baina sustoa emateko nahikoak.

Ibarratik Leitzarako bidean mendatea itxita omen dago. Orain elurra kentzen ari zarela, orokorrean lan honetarako prestaturik al gaude?

Atzo horixe pentsatzen aritu nintzen. Ni hemen ibiltzen naiz herrian bakarrik ezin ailegatu. Beste horiek berriz, ez dakit zenbat kamioi eta traktore eduki arren, ez dira leku guztietara iristen. Bitartekoak badaude baina hala eta guztiz ere ez dira leku guztietara iristen.

Elurra polita da.

Bai, polita da txikiak garenean, baina handitzean eta lanera joan behar den garaian ez. Egin behar baldin badu, egin dezala mendi muturrean [Barreak].



Ezkurra eta Gaztelu. HITZA

Iñaki Gaztelu leitzarrak gaur jokatu du Binakako final handia

Erremontea » Hernaniko Galarretan Ezkurra-Gazteluk Urriza-San Miguel edukiko dituzte aurrean.

A. IMAZ

Txapelketa bikaina jokatu ostean, Iñaki Gazteluk lehen final handia jokatu du gaur Lehenengo Mailan. Binakako Txapelketan leitzarrak Ezkurrarekin osatzen du bikotea. Txapelaren lehian, aurrean Urriza-San Miguel edukiko dituzte Galarretan, 16:45ean hasiko den partiduan.

Binakako Txapelketa irabazteko faboritoak Ezkurra eta Iñaki Gaztelu dira, izan ere, dirua 1.000-800i irtingo da euren alde.

Lan Delegaritzak Berastegiko Munksjo enpresan EREa onartu du

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurilaritzaren Lan Delegaritzak Berastegiko Munksjo Paper SAN EREa onartu du. Enpresak suspentsio lan erregulazio espediente aurkeztu zuen eta hau izan da Lan Delegaritzak onartu duena paper lantegiko komitearen gehiengoaren adostasunik gabe. Espedienteak 8 hilabetetarako iraupena du eta 163 langiletatik 156 langileri eragiten die.

LASKORAIN IKASTOLAK

LANERAKO PREST DAUDEN IRAKASLEAK
BEHAR DITU LAN POLTSA OSATZEKO

- Haur Hezkuntza: goi mailako teknikariak
- Magisteritzan diplomatua arlo guztietan
- Bigarren Hezkuntzan lizentziadunak zientziak eta letrak

Curriculumak tolosa@ikastola.net helbidera bidali.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Teléfonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Aduna.** Asvinenea Kultur Elkar-
teak III. Poltsikoko Antzerki Lehia-
keta antolatatu du profesional eta
amateurrentzat. Informazioa eta
izen-ematea, www.asvinenea.com
webgunean.
■ **Ibarra.** Hilaren 23an 18:00etan
Belabietako kiroldegian izango den
Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen
Piratak ikuskizunerako sarrerak
salgai jarri dituzte 6 eurotan Iba-
rako Zubiaurre Tabernan, Lurdes
dendan, Errotaxon, Uzturpe Ika-
stolan eta Tolosako Zurbeltz disko
dendan.
■ **Ibarra.** Bihar Bizi Nahijubilatu el-
karateak urteko asanblada egingo
du 11:00etan: urteko kontuak,
aktibitateak, batzordea
berritzea, galde-erantzunak.
Ondoren, hamaiketako izango
da.
■ **Tolosa.** Eski irteera Formigalera
antolatatu du Oargi mendi elkar-
tearen 17 eta 18rako. Informazioa
eta izen-ematea, 943 675612,

688 698642 eta www.oargi.org
helbidean.

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkar-
teak fondoko eski ikastaroa antolatatu
du hilaren 17 eta 18rako 1995-98an
jaiotako haurrentzat. Irteera
7:15ean izango da eta itzulera
igande arratsaldean. Izen-ematea,
685 776504 edo
alpinouzturre@begira.com.
■ **Tolosa.** Bonberenea irriariaren
inaugurazioa: irriti maratoia
16:00etatik 20:00etara; Laket eta
Atila y los Hunos 22:30ean. Bihar,
Turtle Island (Japan) musika tal-
dearen kontzertua 20:00etan.
■ **Tolosa.** Veleta-Aiz Orratz elkar-
teak 75 urte beteko ditu aurten.
Argazki zahar eta berrien erakus-
keta ari da prestatzen eta horretar-
rako materiala biltzen ari dira. Baz-
kideek, bazkide ohiek eta zerbitz
dutenek, elkartera eraman dezake-
te. Informazioa 655 738739 te-
léfono zenbakian.
■ **Tolosa.** Abian da Sahararen al-
deko Euskal Karabana, *Piztu Itxa-*

ropena lelopean. Eskualdean, Tolo-
saldea Sahararekin elkarrekin ari da
aurrera eramaten janari bilketa:
arroz, lekaleak, pasta, hegaluzea
oliotan, sardinak oliotan, azukrea
eta konpresak.

Zinema

■ **Tolosa.** *Australia* filma Leidor
aretoan gaur 19:00etan eta
22:00etan, bihar 18:45ean eta
21:45ean eta etzi (Ikuslearen egu-
na) 20:30ean.
■ **Villabona.** *Cenizas del cielo* filma
19:30ean eta 22:30ean.

Erakusketa

■ **Alegia.** Marce Tenaren begiei
buruzko margolanak ikusgai aste-
artetik igandera bitarte Jubilatuen
tabernan. Bizi-biziak eta denetan
begia da jorratzen duen gaia.
■ **Tolosa.** *Geureak ere badira adin-
gabe horiek*, bakarrik dauden adin
txikiko atzerritarren inguruko ar-
gazki erakusketa eta bisita gida-
tuak Kultur Etxean.

■ **Tolosa.** Jose Enrique Ceberioeren
olio-lanak eta akuarelak ikus dai-
tezke Itaie tabernan.
■ **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosa-
raren margolan erakusketa Aran-
buru Jauregian.
■ **Tolosa.** *Basoa* erakusketa
dago ikusgai Aranburu, Ingurugiro
departamentuak antolatuta, La
Caixaren babespean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M.
Martin Jose Iraola, 10.
943 672438.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren,
52.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esanen
eta iritzien erantzunik.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko
leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa **h**

2 sarrera pare

zozketan!



berabera
EMAKUMEZKO
ESKUBALOI TALDEA

irabazleak:
• Felix Irazustabarrena (Alegia)
• Bernabe Azpirotz (Leitza)

**AKABA BERA BERA
Monovar**

LARUNBATA

URTARRILAK 10-19:00

Donostiako Bidebieta Kiroldegian

HITZaren harpidedunentzat abantailak

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue.



Sarrera pare

zozketan!

irabazlea:
• Joxe Ramon Zubeldia (Baliarrain)

**BRUESA GBC
FC Barcelona**

IGANDEA

URTARRILAK 11-12:30

DONOSTIAKO ILLUNBEN

Sarrerak HITZako bulegoan izango dituzue.

LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€
10 liburu 140€

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendetan.
- Ibarra Lurdes liburudendan.
- Villabonako Basajaun liburudendan.



1936KO GERRAKO
OROITZAPENAK

• TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI

galtzaundi

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza